

# Ezpalak

JON TORNER

**Maddalen Arzallus** hendaia irabazi zuen Euskal Herriko XIX. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, Altsasuko pilotalekuan jokatuako finalean. Bigarrena Kristine Txoperena izan zen, hendaia hau ere. Gaztetxoan mailan (14 urte artekoak) Amaia Iturriotz urretxuarrak (Gipuzkoa) jantzi zuen txapela. Imanol Irazustabarrena alegiarra (Gipuzkoa) izan zen txapeldunordea.

**Juan Kruz Igerabide** *Kakotxen k herrialdea* liburua kaleratu du. Haur eta gazteentzat idatzitako lanentzako SM Fundazioaren Baporea saria irabazi zuen iaz lan horrek. Bestalde, Josexto Oruetaren *Los Planes de Lidia* (Lidiaren asmoak) komedia futurista plazaratu du Erein argitaletxeak.

**Pedro Seguro** eta Puri Lete pintore erreteriarrek Donostiako Kutxa Boulevard aretoan paratu dituzte euren obrak. Seguroaren akuarelak eta Leteren akuarela zein olio-pinturak uztailaren 8a arte izango dira ikusgai.



**My Jok** kolektiboko Lady MY-ek *Vote Panda* proiektua aurkeztuko du uztailaren 12an Bilboko alde zaharreko My Jok Box dendan. Politikarien komunikazio estrategien inguruko *performaceak* eta erakusketa bitxi batek osatzen dute proiektua. Erakusketa uztailaren 13an zabalduko du. Errotuladoretz eginiko kartelak, txapak eta *Vote Panda* kamisetak bildu ditu bertan Lady MY-ek. Informazio gehiago: [www.myjok.com](http://www.myjok.com).

**Philippe Garrel** zinemagile frantziarraren atzera begirakoa eskainiko dute aurten Donostiako Nazioarteko Zinemaldian. Garrelen lan ezagunen artean *La naissande de l'amour*, *Le vent de la nuit* eta *Les amants réguliers* daude, besteak beste. Azken horrekin, Garrelek zuzendari onenaren Zilarrezko Lehoia jaso zuen Veneziako Zinemaldian.

## Idoia Sagarzazu hil da



EITB

Joan den asteburuan hil zen minbiziak jota Idoia Sagarzazu aktore irundarra. 46 urte zituen Sagarzazuk eta arrasto sakona utzi du antzerkian, telebistan eta zineman. Besteak beste, *In Fraganti* antzezlan arrakastatsuan parte hartu zuen 90eko hamarkadan.

Telebistan egindako lanen artean *Teilatupean*, *Benta Berri* eta *Ganbaran bai* telesailak nabarmentzen dira. Pantaila handian berriz, *Maité* eta *Karramarro uhartea* ekoizpenetan parte hartu zuen.

## Chucho Valdesek itxiko du Getxoko Nazioarteko Jazzaldia

**UZTAILAREN 4TIK 8RA** izango da Getxoko Nazioarteko Jazzaldia-ren 31. edizioa. Orotara 15 emanaldi eskainiko dituzte Algorta auzoan. Jaialdiari Aldo Romano, Louis Sclavis eta Henri Texier musikariek emango diote hasiera. Azken kontzertua, berriz, egitarauko musikari handienetako batek eskainiko du, Chucho Valdes pianista kubatarra. Bi emanaldi horiek Biotz Alai plazan izango dira, beste hiru egunetako kontzertu nagusiak bezala: Paolo Fresu & Uri Caine (uztailaren 5ean), Charlie Haden Quartet West (6an) eta Lee Konitz Nonet (7an). Bestalde, Jazzaldiak iraungo duen bitartean, Fernando Barcenak 2005ean eta 2006an eginiko argazkiez osatutako erakusketa izango da ikusgai Getxon. Jazzaldiaren inguruko irudiak dira guztiak. Egitarau osoa [www.getxo.net](http://www.getxo.net) web gunean kontsulta dezakezue.

[Miren Jaiok Bizkaiei! web gunean:](#) «Arlo danatan sortzaile asko dago, gaur egun informazio zaparradea bizi dogu, produktino kulturala upealakoa da eta giro horretan, zertarako produzidu? Askotan sortzaile baten kezka edo ardurea izaten da ze dana dago asmata. Ganera, nire sentsazioa da kultura metaketa horrek antsiedadea, ezinegona eragiten dauela. Artea agresino, eraso moduan sentiduten dogu sarritan, trenez zoaz eta musika dago zuk eskatu ez arren, telebista biztu eta era guztietako irudiak sartzen jakuz bata bestaren atzetik».

[Cesar Sarachu aktoreak Euskonews & Media web gunean:](#) «Ene eskarmentuaren arabera, Internet lanak erakusteko tresna ona dela esango nuke baina, eskaintza benetan itzela denez, aktore zaren aldetik arriskua nabaria da: 'Interneten agertzen den tipo bat' bihurtzea. Hor izena edo abizena ez da beharrezkoa, ikusi duena komentatzen du jendeak baina, ezagun-ezaguna ez bazara, inortxo ere ez da zure izenarekin oroitu (...) Antzerki aktorearen lanbidea anonimo samarra da, hori sinestezina edo, areago, absurdua bada ere: horra telebistak daukan ahalmena, zeu aurpegi ezagun bihurtzeko».

## Euskal Etxeak eta lastozko zubiak

### Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarra

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak lau urtean behin antolatzen du Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarra. Aurtengo da laugarrena, *Zubigintzan* izenarekin. Hilaren 9tik 13ra, munduko bazter guztietatik etorriko dira Euskal Etxe eta elkarteetako ordezkariak, protokolo handiz jantzitako kongresuan eztabaida eta analisisa mamitzeko asmoz. Eta behar dute aztertu. Munduan existitzen diren hamarnaka Euskal Etxeren etorkizuna kinka larrian baitago. Duela urtebete inguru astekari honetan honela zioen Gloria Totoricaguena ikertzaileak: "Deskonexio beldurgarria dago hango eta hemengo euskaldunen artean eta zubiak eraiki beharra dago. (...) Gaur gaurkoz, uste dut Euskal Herrian bizi diren gehien-gehienek ez dutela ulertzen emigrazioa, ez eta zergatik nahi duen hemengo eukaldunak identitateari eutsi".

Arrazoi du Totoricaguenak, nortasun bikoitzaren auzia ez da erraza ulertzen askorentzat. Baina gauza bat da nortasunari eta erroei heldu nahi izatea eta bestea folklorismo hutsean erortzea. Tamalez, Euskal Etxe askotan horixe gertatzen da. Hor dago eronka beraz: euskal nortasuna erakargarri egingo duen Euskal Etxea antolatzea; Sabinoren

garaiko etnokeria irrazionala joan gabe, baina kanpoko euskaldunei bost axola zaien euskal hiri global horren ustezko birtuteak janarazi gabe ere bai.

Hala ere, eronkarik handiena Euskal Etxeen etorkizuna definitzea da. Eta horretaz ere hitz egin beharko lukete Bilboko biltzarrean. Erakunde publikoen dirulaguntzen menpe baino irauten ez duten elkarten geroaz; Ipar eta Hego Amerikako euskal jatorriko sektoreen pentsamolde ezberdinaz; ideologia –edo alderdi– politiko zehatz baten hegemonia eta paternalismo asaldagarriaz; sekula iristen ez den belaunaldi erreleboaz... Zubigintzan ari omen da Eusko Jaurlaritza, baina kontuz! Lastozko zubiak egiten hasiz gero Markosi gertatutakoa errepikatzeko arriskua baitago, eta txerria bakarrik eroriko balitz, gaitzerdi! Aurkituko al dute Bilbon zubi sendo bat eraikitzeko giltzarririk?

Aurtengo Euskal Gizataldeen  
IV. Mundu Biltzarra  
iragartzeko afixa

URKO APAOLAZA



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun  
Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718  
e-posta: info@hotelatalaia.com  
web orria: www.hotelatalaia.com